7107

1

# Laburra.

9 IGANTIAN.

G Credoan ikassiric, cer sinhexi behardugun, non ikasiren dugu, cer galthatu behar dugun Gincoari?

I Pater nosterrian, Jesus Jaunac berarc eracaxi dericunian.

G Erraçu houra?

I Goure aita, Celietan cirena, erabil bedi saintuki çoure icena, çoure erresouma gin beguigu, çoure borontatia eguinbedi Celian beçala lurrian. Hunçu eguin goure eguneco oguia, eta parca itaçaguçu goure bekhatiac hala noula gue partcatē baitutugu goure oguen eguiler, eta esquitçaçula eitz tentacionetara erortera, bena beguira guitçaçu gaitzetic halabis

G Erraçu Pater? (Patera)

I Pater Noster, qui es in celis, santificetur, etc.

G Galtho horien ardiesteço nor duguçu Gincoa gana arartecari?

I Maria Sainta; Ainguiriac, S. Elizabete eta Elizac lehenic eguin derien othoitciaz.

G Erraçu houra?

I Salutatan çutut, Maria, graciaz bethia, Jauna da çourequi, benedicatu cira emazte ororen artian, eta benedicatu da çoure sabeleco frutia, Jesus; Maria Sainta Gincoaren

ama othoitz eguiçu gu bekhatore gatic orai eta
gure hilceco orenian halabiz.

G. Erraçu latiz?

I Ave Maria, gratia plena, &a

---

10 IGANTIAN.

## SEY GARREN CAPITULIA

### Christi içatiaz, eta Curutchiaren cegnhariaz

Math. 28. v. 16. Tertulien de corona militi. c. 3

G. Christi cireya?

I Bay, Gincoaren graciaz

G Cer erran nahi da Christi içatia?

I Jesus-Christen fedian eta leguian bici guirela eracoustia.

G. Çoin da Christi eguiascoaren cegnharia?

I Curutchiaren cegnharia

G Çonbat misterio daduzca honec?

I Laur: 1. Gincoaren içate bakhoitça, II Personen Trinitatia, diot hirourtatcuna 3. Ginco semiaren Incarnacionia, diot araguistatcia, 4 Bekhatoriaren Gincoareki bakétzia

G Hola horic eracousten dutu?

I Erraitiaz icenian, eçaguten dut eztela Ginco bat baicic, hanitz baliz, erran niro icenetan, 2. Erraitiaz aitaren eta semiaren

eta Espiritu saintiaren; aithortcen dut badirela hirour persona Jincoatan, 3 Escu escuñaren bolharriala erraitiar, diodala eta Semiaren; Içagutcen dut Trinitateko bi garren persona incarnatu, diot araguistatu içan dela virginaren sabelian, 4 Eskiaren igaraitiar eskerreco sorbaldatic escuñecoala, aithortcen dut Jesus Christec igaren eraci gutiala Jincoaren eskerretic, diot Escaigoatic bere escuñiala, erran nahi da bekhatutic graciala, 5 Eracousten dut curutchiaren ceñhariar, Jesu Christ curutchian hil dela gu gatic.

---

11' IGANTIAN

G Cergatic eta noiz ceñhatu behar dugu?

I Iraizteco Deabrien eta tentacionen goure othoitz eta lanen haxarrian.

G Eguiten ducia bestela curutchiaren ceñharia?

I Bai, Evangelioaren haxarrian: boronthian, ahoan eta bolharrian

G Cergatic hirour ereta horiètan?

I Ereousteco Jincoari ohorescatcen deritçogula goure gogoac hitzac eta bihotçac

G Aski deya Jincoatan sinheste ukheitia eta haren othoitcia?

I Ez: ceren escriturra saintiac baitio Deabriec ere sinhesten diela eta ikhara davilçala, alabena bethicoz

galdu dira.

G. Cer behar da beraz salvatu içateco? Iac. 1. v. 19

I. Equin: ceren gowre fedeac lagundu içan behar Iac. 2. v. 14.
baitu obra honez: Eci escritura saintuac dio fedea
hil dela obra gabe

G. Non ikhasiren dugu onsa eguiten ?

I. Jincoaren, eta Eliçaren manietan

G. Çombat dira Jincoaren Maniac? I. Hamar

---

12 IGANTIAN

## ÇAZPI GARREN CAPITULIA Exod. 20.

G. Erratçu Jincoaren maniac

I. 1 Jinco bakhoitz bat adora eta maitha eçac
gaiça ororen gagnetic.

2 Jincoaren icena jura ezteçala ez bertz gai-
çaric behar gabe

3 Igantiac beguira itçac, Jinca cerbut-
chatcen diala devotki

4 Aita eta Ama ohora itçac luvrian bici adin
luçaski

5 Guiçon ez içala obraz, ez boronthatez.

6 Luxurios ez içala gogoz, ez corpitcez.

7. Besteren hona ebax ezteçala, ez dakia-
laric edugni.

8 Jakile falsu ez içala, ez iagoitic guneçunti.

9 Araguiazco obra ouhiex ezteçala ezconcaz baicic

10 Besteren honic nahi eztiala edukiteco gaitoki

G. Çonbat dira Eliçaco manuiac. I Çazpi
G. Erratçu.
I 1. Igantez Meça ençun eçac, eta Besta manatiez devotki
2 Hire bekhatiac oro cofessa itçac ourthian behin, gutiena
3 Ore Creaçalia errecevi-eçac berantena Bazcoz umilki
4 Elicaz manatu bestac beguira itçac legalki.
5 laur temporac, vigiliac eta goroçuma barour itçac ossoki
6 Ostiralian, eta neskenegunean eztequla ian aragiric
7 Tempora devetatiez eztaguiala Ezteyic: eta Detchema, Primiciac paca itçac chuchenki.

---

13 IGANTIAN

# ÇORTCI GARREN CAPITULIA

## Vertute Theologal, eta Cardinalez.

G Conbat verthute guehien dira?
I Çazpi: hirour theologal eta laur cardinal
G Coin dira Teologalac?
I Fedia, Esparancha eta Caritatia.
G Cer gatic deitcen dutugu Teologalac?
I Gincoari chuchen sogniten deriulacoz.
G Cer da Fedia?
I Gincoac emaiten dericun dohain bat, çoynez

Sinhex eraciten baiterisku ossoki, Gincoac bere Eliçari erran deritçonac oro.

G. Cer da Esparancha?

Rom. 5 I Verthute bat çoinçaz ugurukiten baitugu Gincoac hitz eman derizcun hon guciac

G Cer da Caritatia

I Verthute bat, çoinçaz maithatcen baitugu gaiça ororen gagnetic, beraren amorecatic, eta gouru Christi laguna guihaur beçala, Gincoa gatic.

G Nola oraiberian eracoux cinuro ~~Paradi~~ ~~[illegible]~~ ducun sinhestia?

I Ene Gincoa, cinez sinhesten diçut badela Paradu su bat gente perestien, cihauc erran duculacoz

G Nola eracoux cinuro çoure bekhatien parcamentia ugurukiten duçula?

I Ene Gincoa! Esperancha diçut parcaturen deriztadaçula ene bekhatiac orohon; ahalsu eta hitz emanen edu fide cirelacoz.

G Nola eracoux cinuro Gincoa maite duçula?

I Ene Gincoa! Bihotz ossoz orotaco maitatua çutut, hountarçun ac oro cutan direlacoz

G Çoin dira verthute Cardinalac?

I Prudencia, Justicia, Temperancia eta Indarra

## 14 IGANTIAN Bederatçugarren CAPITULIA.

### Espiritu saintiaren dohagnes eta beste verthutez.

G. Çombat dira Espiritu Saintiaren dohagnac?

I Çazpi: 1 çuhurtcia. 2 Enthelegua, 3 jakitea, 4 devotionia, 5 Aholkia, 6 Indarra, 7 Guicoaren beldurra.

G Çombat dira obra misericordiazcoac?

I Hamalaur: çazpi arimari honkitzen direnac, eta beste çazpi corpitçari.

G Çoin dira arimacoac?

I 1 Estakiener eracastia, 2 oguendunen castigatcia, 3 beharien homialb aholcatcia, 4 penatien consolatcia; 5 gaitzkien emeki egartia, 6 oguien eguiten deritzkiener parcatcia, 7 bici eta hilen, gaure etsaien taco ere Guicoari othoitz eguitia.

G Çoin dira corpitcecoac?

I 1 Goss direner iatera emaitia, 2 egarri direner edatera, 3 bilaicen vertitzcia, 4 ere eta personaren urgaztia 5 senthoralen etchera hartcia, 6 Captivoen arrerostia, 7 hilen ehortzia

G Çombat dira [hoben] icateco aholcu saintiac?

I Hirour: 1, bere gogozco baguecia, 2 bethierreco castitatia, 3 sori diren gaiza orotan Jinhestia.

G Nor guerthu daite dohatzu?

I. Çortçi gente guisa, 1 berenaliz pranna

Jilly.

direnac, 2 emeë direnac, 3 bere bekhatuez ni-
gaz eguiliac, 4 guçau eguiliac 5 misericordia Eguilcac, 6 bihotcez
chahu direnac, 7 bakezcoac, 8 equimbidia
gatic gaitz egarliac.

15 IGANTIAN

## HAMARGARREN CAPITULIA

Bekhatiaz eta harren erremedioez, Indulgenciez, etc.

G Cer da Bekhatia?

I Ginco**aren leguia hausten diana oro.

G Çonbat bekhatu guisa da?

I Biga: Originala eta actuala.

G Cer da bekhatu Originala?

I Adam mundüco lehen guiçonaz eguin duguna, çoguiz coçaturic sortcen baikira.

G. Cer cen bekhatu houra?

I Ginco ac frutu devetatu cerionaren jatia Eden deitcen cen baratcian, edo lurreco Paradusian.

G Frutu houra gaisto cena?

I Ez: Gincoac estu deus eguiten gaiz torie

G Cer gatic beraz Ginco ac devetatu cerioen houra guiçonari?

I Sinhetciren cianez borogatceco.

G Cere eragotci cian lehen guiçona mamu haren haustera?

I Debriac hartara tentatu cian eta aholcatu Eva haren enastiaz.